**Lexiko azterketa** — *Azken balada* Mariasun Landa • Erein

Izen-deiturak: ........................ Maila-taldea: ..........

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: ...... puntu.

Zuzen:

Nota:

| | |
|---|---|
| **ohartu** | **Ohartu** gabe iritsi ginen egoera hartara… |
| **eten** | Batzuk Leonen alde, beste batzuk nire alde, Etxe borroka **eteteko** oihuka. |
| **erein** | Malko artean **ereindako** patxoa. |
| **txorkatila** | Ematen nuen pauso bakoitzeko korapilo bat trabatzen zitzaidan **txorkatilan**. |
| **itsukeria** | Neure onetik ateratzen ninduen **itsukeriak**. |
| **irainduta** | —Potroetaraino nago zure komentarioekin, Leon —esan zion, **irainduta**, Olak. |
| **potroetaraino egon** | —**Potroetaraino nago** zure komentarioekin, Leon —esan zion, irainduta, Olak. |
| **larru gorritan** | —…Zu **larru gorritan** ikusi zaituela eta, agian, gustuko izango zaituela pentsatzea? |
| **zirrikitu** | Makurtu egin ginen, baina bidoien **zirrikituek** uzten zuten neurrian begira jarraitu genuen. |
| **afixa** | Oreinak ikustera joan zen eta harritu egin zen **afixa** berri bat ikustean: debekatuta dago jaten ematea. |
| **albaitaritza** | **Albaitaritza** ikasketak burutzear zegoela eta ama sendo eta bizkor zebilela esan zigun. |
| **temati** | Nire iritziz egin behar zena egiten saiatu nintzen: tira eta bultza egin nion, indarrez eta **temati**, kortan sartu nahi ez duen txahal bati bezala. |
| **zipriztindu** | ...eguerdian hildako oilo baten odolaz bere arropa **zipriztintzeko**. |
| **arima** | Gero, gauean, aitari eta niri esaten zigun etxekoandreak "**arimaren** gaixotasuna" zuela... |
| **jetzi** | Nirekin igarotzen zuen eguna eta nire lapikotik jaten zuen, behiak zaindu eta **jetzi**, mendian ibili... |
| **zentzagarri** | —Agian, Jakesek **zentzagarriren** bat beharko luke –esan nion maltzur aurpegia jarriz. |
| **belarrondoko** | Jo eta guzti egin ninduen, eskuz zein hankaz, **belarrondoko** eta ostikada pilo bat. |
| **botagura** | —Eguerdira arte ez da ohetik altxatzen! Batean buruko mina, bestean tristura, hurrengoan **botagura**... |
| **esnegainetan hazia** | ...hango etxeko andrea eta bere seme-alabak beste mundu batekoak iruditzen zitzaizkidan: **esnegainetan haziak** edo. |
| **umemoko** | Artean **umemokoa** nintzela, zaildutzat eta uste osokotzat hartzen nuen nire burua, katarrorik harrapatzen ez zuen umetzat… |

| Lexiko azterketa — *Azken balada* Mariasun Landa • Erein | |
|---|---|
| Izen-deiturak: ........................ Maila-taldea: ............ | Zuzen: |
| Testuinguruaaintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak. | |
| Azterketa honen balioa: ......... puntu. | Nota: |

| | |
|---|---|
| **ukuilu** | Amatxo sukaldeko eta etxeko lanetan aritzen zen, eta aita **ukuiluan** eta soroetan. |
| **dupin** | —Afal, afal, Jakes, ni nuk hor lehena, ene haragiaz beterik **dupina**! |
| **marru** | Beste orein guztiek korrikari ekin zioten eta sakabanatu egin ziren bizkor, orein zaurituak lurrean **marru** ahulak egiten zituen bitartean. |
| **zelatan egon** | …bazterrak aztertzeari ekin zion lehenbailehen hostotzaren atzean ezkutatu eta **zelatan egoteko**. |
| **hostotza** | …bazterrak aztertzeari ekin zion lehenbailehen **hostotzaren** atzean ezkutatu eta zelatan egoteko. |
| **ezkutatu** | …bazterrak aztertzeari ekin zion lehenbailehen hostotzaren atzean **ezkutatu** eta zelatan egoteko. |
| **erregutu** | Han, biak bakarrik, zer gertatzen ari zen esateko **erregutu** zion jainkoarren… |
| **ahur** | …oin-aztarnen artean, eskuko **ahur** txiki txiki baten tamainako apatx batzuk agertu ziren. |
| **apatx** | …oin-aztarnen artean, eskuko ahur txiki txiki baten tamainako **apatx** batzuk agertu ziren. |
| **peskizan** | Grina handiagoz jarraitu zuen **peskizan**, nekeari eta denborari erreparatu gabe. |
| **laborari** | —Gainera, Migel laborariak dioenez, orein eme txikiago bat omen zebilen taldean... |
| **urritu** | Aspaldi zegoen zapuztuta, iruditzen baitzitzaion inguru hartan ehiza **urritzen** ari zela. |
| **zapuztuta** | Aspaldi zegoen **zapuztuta**, iruditzen baitzitzaion inguru hartan ehiza urritzen ari zela. |
| **malapartatu** | —Neska **malapartatua**! –orro egin zuen ahots batek–. |
| **ereinotz** | ...bedeinkaturiko ura ekartzen zuten elizatik etxera; **ereinotz**-adar bat ur hartan busti eta etxeko abereen bizkar gainean eta korta barruan barreiatzen zuten... |
| **pegar** | Neskatilak **pegar** bat zeraman besoetan urez beteta, eta apur bat okertuta zebilen haren kargagatik. |
| **adats** | Gainetik, kapa ilun bat zeraman, baina **adats** hori estali gabea sorbaldetaraino erortzen zitzaion. |
| **hori** | Gainetik, kapa ilun bat zeraman, baina adats **hori** estali gabea sorbaldetaraino erortzen zitzaion. |
| **aztoratu** | —Ixo, ixo, gizona! Ez **aztoratu** Jainkoaren bakean bizi den jende zintzoa! |
| **trobalari** | Mayiri izugarri gustatzen zitzaion erdi-mezulari erdi-**trobalari** haiek ekartzen zituzten haize berrien arabera dantzatzea... |

**Lexiko azterketa** — ***Azken balada*** Mariasun Landa • Erein

Izen-deiturak: ........................................ Maila-taldea: ..................

Testuinguruua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: .......... puntu.

Zuzen:

Nota:

| | |
|---|---|
| **araldi** | Orein ar adardunak, apain eta tenteak, **araldian** soilik hurbiltzen zitzaizkien. |
| **bederen** | ...orein taldea bakean eta patxada ederrean zegoela, Mayi hurbildu egiten zitzaion haizearen kontra bazeuden **bederen**. |
| **patxada ederra** | ...orein taldea bakean eta **patxada** ederrean zegoela, Mayi hurbildu egiten zitzaion haizearen kontra bazeuden bederen. |
| **buila** | —Ados. Etorri nirekin, baina **builarik** egin gabe. |
| **miretsi** | Ez, ordea, orein gaixoak akabatzeko, gertuagotik **miresteko** baizik, haien edertasunaz hobeto gozatzeko. |
| **akabatu** | Ez, ordea, orein gaixoak **akabatzeko**, gertuagotik miresteko baizik, haien edertasunaz hobeto gozatzeko. |
| **ehizaki** | Goizean goiz jaiki, mendian ibiltzeko arropa aproposa jantzi, eta balezta eta geziak hartuta, **ehizakien** atzetik gainean abiatzea. |
| **balezta** | Goizean goiz jaiki, mendian ibiltzeko arropa aproposa jantzi, eta **balezta** eta geziak hartuta, ehizakien atzetik zaldi gainean abiatzea. |
| **kuttun** | Ama alargunaren bihotzeko **kuttuna** izateaz gain, dorretxe ederra zeukan bizileku, Inesa Dorrea. |
| **alargun** | Ama **alargunaren** bihotzeko kuttuna izateaz gain, dorretxe ederra zeukan bizileku, Inesa Dorrea. |
| **balada** | —**Baladako** neska protagonistak Mayi izena zuen; eta nebak, Jakes. |
| **gogaikarri** | Keinu **gogaikarria** egin zuen Erramunek. |
| **zer demontre!** | —Ez zekinat gaur egun **zer demontre** erakusten duten eskolan! |
| **amorratu** | Eta haren neba ehiztari **amorratuari** gertatu zitzaiona? |
| **gertatu** | Eta haren neba ehiztari amorratuari **gertatu** zitzaiona? |
| **saihestu** | Maitane ez zen edozer gauzarekin harritzen zen neskatila horietako bat, baina, oraingo honetan, ezin izan zuen jakin-minaren ziztada **saihestu**. |
| **jakin-min** | Maitane ez zen edozer gauzarekin harritzen zen neskatila horietako bat, baina, oraingo honetan, ezin izan zuen **jakin-minaren** ziztada saihestu. |
| **bataiatu** | —Zer uste dun ba? Hik ahateei izena jarri, eta neuk orein bikotea **bataiatu** gabe utziko nuela? |
| **erantzule** | —Eta nire ardurapean zeuden, neu naun Mayi eta Jakesen azken **erantzule**! |
| **auzo** | Erramun bera hunkiturik zegoen **auzo** berriekin, disimulatzen saiatzen bazen ere. |